

GAZTARO BILDUMA

EGUBERRI ETA GABON IPUINAK



Juan Manuel Etxebarria

GAZTARO BILDUMA

EGUBERRI ETA GABON
IPUINAK



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren
diru-laguntza jaso dau.


© Ibaizabal argitaletxea, 1999

ISBN: 84-8325-231-7

Legezko gordailua: BI-769-99

Tailer grafikoak: ZURE, S.A.

GAZTARO BILDUMA



EGUBERRI ETA GABON IPUINAK

Egilea: Juan Manuel Etxebarria

Marrazkilaria: Inma Mendiola

Bizkaieraz: Sabin Barruetabeña

*Zutik gure Euskal Herri
beti zahar, beti barri
poz pozik eta bakean bizi
Gabon eta Eguberri.*

I

ERROTARI HANDIKIA EGUBERRIETAN

Kristautasuna Euskal Herrira heldu barri egoala, Gorbeia inguruko herri txiki eta polit baten, errotari handiki bat bizi zan bere errota zaharrean.

Urteak joan urteak etorri, zaharkitu eta gauzeztandu egin jakon bere errota zahar maitea eta barria egitea pentsatu eban.

Esan eta egin. Lehenengo, errota zaharrak eukazan gauza probetxugarriak aukeratu, gero falta jakon beste guztia lortu eta hasi zan errota barri hori egiten handikeriaz beterik.

Behingo baten lortu eban errota barri hori egitea eta pozik baino ere pozago egoan lehen-goia baino errota handiagoa eta hobea egin ebalako.

Herriko zein albo-herrietako beste errotariak sorots egiten eutsien euren errotatxoak ezerezean geratuko ete ziran bildurrez.

Egunak joan egunak etorri, heldu jakon errotari handiki horri errota barria martxan botatzeko eguna. Udagoiena neguari deiadarrez ebilen, beraz, Gabon aurre-aurrettoa.


Harrokeria ez jakon falta eta herri guztiari ezeze, beste errotari apal guztiei ere agindu eutsen bere errota modernoa ikusten joateko gonbitea.

Ha bai zala ikustekoa! Herri osoa errota barriaren inguruan, beste errotariak ere urruntxotik begira eta erdi-erdian errotari handikia.

Danak ixildu ziranean, errotari handiki horrek hiru-lau berba botateko errotarrizko mahai batera igon eta badino:

—Hemen daukazue aspaldiko partez, inguru guztiko errotarik handiena eta onena. Aurrerantzean ez dozue eukiko zeuon gari eta artoak ehoteko arazorik. Oraintxe, zeuon guztion aurrean botako dot martxan errota barri hau eta badakizue, aurrerantzean etorri danok neure errotara!

Entzuleen artean era guztietako harrerak ikusi eitekezan. Errotari handikiaren bezeroak pozik, beste batzuk ezbaian eta hirugarren batzuk arduraz ea beste errotari apalakaz zer gertatuko ete zan pentsatzen.



Handik lasterrera, jaitsi zan errotari handiki hori igonda egoan mahaitik eta, bere errotea martxan botateko, anteparako uhatea zabaldu eban ur-indarra joan ekion erroteari. Baina ur hori joaten hasiaz batera, krisst-krausssst! zarata berezi bat entzun zan eta erroteak zirkinik ere ez! Bigarrenez ere egin eta bardin!

Errotari handikia ez zan ausartzen hirugarren intentoa egiten. Zuri-zuri egoan, zer pentsatu ez ekiala herritar guztien berbaroaren erdian. Berbalotsa ez zan falta ez herritarren artean eta apur bat ixildu zanean jentea, badinotso handik atze partetik beste errotari apal eta zintzo batek:

—Hi, hor heure burua apurtzen egon beharreen, zergaitik ez hoa Gorbeia ondoko Supilaur kobara eta Mari Anbotokoari kontsultea eskatu. Inork esatekotan, harexek esango deua zer arraio gertatzen jakon errota barri honi!

—Ba, mutil —erantzun eutsan errotari handiak—, hori baino ez badok joan egingo natxakok lehenbailehen eta beren beregi.

Asmo horregaz etxeratu zan ha errotari handikia beste guztiak, harriturik, euren etxeetara joiazan bitartean.

Gau luzeak asko igaro ebazan, baina ez halakorik. Inondik eta inora ere ezin eban loak hartu. Kanpandorreko erlojuko ordu lauren, erdi eta oso guztiak entzun ebazan gauaro larri haretan.

Hurrengo goizean, tertzioz jagi, barausi, hartu zakuto baten biderako jakia, jantzi mendirako soineko eta oinetakoak, aitearen egin errotatik urtekeran eta Gorbeia bidea hartu eban.

Bajoian Supilaur kobarantz, arin joan ere, inori barbarik egiteko adore handi barik.

Mendian gora zala, hainbat artzain, mandazain, egurgin, ikazgin eta gainetiko ikusten eban ikusi ere baina ez egoan berbagura errotari handiki hori, harik eta bere barruko ardurea kendu arte.

Joan eta joan, halako baten heldu zan Supilaurreko kobearen atakara. Barrura sartu orduko, atsedean pitin bat hartu eban, izerdia sikatu eta arnastua kentzeko.

Nasaitu zanean, zutundu eta astiro-astiro sartu zan sartu ere Supilaurreko koba nagusira.

Ikaraturik egoan hango harri landuzko mahaiak, urregorritzko tresnak eta apaingarri guztiak ikustean.

Bazter guztietara adi joian kobazuloan barrurantz eta halako baten, handik sakonetik, berba honeek entzun ebazan:

—Nor dabil hor?

—Neu nozu —erantzun eutsan errotari handikiak bildurkilik—, urli lekutako errotaria! Eta zu nor zaitut ba?

—Ni? Mari Anbotokoa!

—Ba, zeugana nator kontsultea egitera!

—Jezarri hor harri landuzko aurki baten eta itxaron, atoa nozu zeure aurrean!

Errotari handikia jezarri zan eta, esaneko moduan, berehala plantatu jakon Mari Anbotokoa bere ondoan.

Andre zoragarria zirudian, ondo jantzita, uleak ondo orraztuta, narru-azala urdin-urdina eta berbaikuna gozoduna.

Mari Anbotoko horrek sagardoa atara eutsan mahaira urregorritzko basu baten eta errotariak, ohitura eukanez, “Jesus” esan eta tragu bat egin eban.

Errotariaren harridurea eta ulertu ezina ikustean, badinotso erdi irribarrez Mari Anbotokoak:

—Ez hadi ikaratu! Kristo jaioz gero ez hainbeste baina aurretik herritar asko etorri izan dok hona, nigana, kontsultea eskatzera. Beraz, nasai! Zerk hakar hona hain estu eta larri?

—Ba, hara, errota barri bat egin barri dot eta martxan botaten joan nazanean, krisst-krausst! entzun ondoren zirkinik ere ez deust egin eta berorregana nator kontsulta eske!

—Errotea esan deustak? Bolua izango dok!

—Bolua berba zaharra da, orain errotea esaten deutsagu.



—Tira ba, baina, martxan bota aurretik kristau-ohiturako bedeinkazinerik edo errezurik bota deutzazue?

—Ez ba!

—Ba, begira —erantzun eutsan Mari Anbotokoak—, hori errota barri hori deabruak zeukak lotuta eta martxan bota eta behar dan moduan ibiltea gura badok, urli lekutako komentuko abadeak bedeinkatu egin behar jok Gabon eguneko gauerdian, gaueko hamabietan.

—Gabon egunean? —zirautson errotariak—. Ba Gabonak gaine-gainean doguz, oraintxe gabilta gabonkariak prestatzen egun handiok ospatzeko!

—Holan badok hobeto, arinago lortuko dok errota barria martxan imini eta Gabon-ogietarako garia ehotea. Orain joan hadi bake-bakean eta hurrengorako badakik zer egin. Ni neu hemen geratuko nok kristau-aroan ez daukadalako potererik, baina zuok ospatu zintzo-zintzo Eguberri kristautuak!

Errotari handikiak eskerrak emon eutsazan Mari Anbotokoari eta kobazulotik atzerantz urte-nez, etxerako bidea hartu eban.

Gorantzean baino beherantzean adoretsuago egoan errotari handikia eta zantzo batzuk ere bota ebazan pozaren pozez.

Errotara heldu zanean, inori ezer esan barik, jantzi domeketako soinekoak, hartu zalpurdia eta Mari Anbotokoak esaneko komentora abiatu zan.

Aida, aida! esanda bizkortzen ebazan zaldiok eta bajoian bideak betean herriko jente guztia adi itzita.

Komentora heldu zanean, saltu bat egin bere zalpurditik eta komentoko ateko kanpatxoa jo eban eta abadea eskatu.

Etorri jakon abadea eta errotari horren urduritasuna ikustean, ezbehar gorriren bat gertatu zalakoan edo badinotso:

—Zer Jaungoiko gertatzen da ba hain estu eta larri etorteko?

—Zer gertatzen jatan? Ba, aditu: errota barria egin barri dot eta Mari Anbotokoaren esanetatik, deabruak dauka lotuta errota hori eta martxan botateko komento honetako abadearen bedein-kazinoa behar dala jakin dot.

—Tira ba —erantzun eutsan abadeak—, gaur Gabon bezperea dogu eta bihar joango natxatzu Gabon gaua zeuonean egingo dogu eta gauerdiko hamabietan bedeinkazinoa botako deutsagu errota barri horri.

Halantxe egin eben. Abadeak bedeinkazinoa boteaz batera deabruaren ikaragarritzko burrrrrrundada! bat entzun zan errota guztian zehar.

Bedeinkazino ostean, trikitin-traukitin! marxan hasi zan mugitu ezinik egoan errota barria.

Harek errotariak, Eguberri-Gabon ingurumarietako herritarren galgarau eta artagarauak kitan-tza barik eho ebazan. Alde batera bota ebazan bere ordurarteko harrokeria guztiak eta herritar on legez biziten ikasi etorkizunean.

II OLENTZERO ETA EGUBERRI

Aspaldi, basajaunak edo jentilak Eguberri ospatzeko alkartu ei ziran Aralar mendiko landa zelai baten.

Neguaeren hasiera-hasierea zan, udearen hasierarik hona laburtzen-laburtzen etorren egun-argia luzatzen hasteko eguna, Eguberri hain zuzen.

Danak egozan pozik. Basajaun gazteak saltoka eta harri-bolan ziharduen, helduagoak indar gitxiko eguzkipean dantzan eta zaharrenak jezarrita ingurumarietan danera adi.

Basajaunik zaharrena ez egoan besteakaz, atzeragoan baino. Zaharraren zaharrez, begiak ere itxita eukazan, gorputza sor, burua arin, eskuak indarga eta hankak loka. Ez zan gauza jezarrita egoteko ere eta horrexegaitik eukien haitz bati deutsal, erdi etzunda basajaun zahar gizaixoa.

Eguberri osoa emon eben ospakizunetan eta ilunabarra noiz helduko egoala, argi berezi bat ikusi eben ekialdetik.

Pentsakor geratu ziran danak ere eta inor ez zan ausartzen ahorik askatzen ha argia zer izan eitekean azaltzeko, inoiz ikusi bakoa zalako.

Iluntzea aurrera joan ahala, argi berezi hori geroago eta hurbilago eukien eta basajaun horre-
etako ausartienak hasi ziran esaten batak besteari:

—Hi, eguzkia jatork barriro! —batek.

—Hago isilik! —beste batek—, eguzkia sartu dok sartzamendian; hori ilargi bizia izango joagu.


—Zagoze biok isilik! —hirugarren batek—, ilargia ilbarrian jagok, beraz, hori argi hori izar handiren bat izango dalakotan naiagok.

Eztabaidok entzun orduan, basajaun guztien buruzagia berbea hartu eta era honetara hasi jaken berbetan:

—Nik neuk ere ez jakiat hori argi hori zer dan, ez joat inoiz ikusi holakorik eta, baina beharbada, han baztertuta daukagun basajaun zaharrenak zerbait jakingo jok!

Nagusiaren berbok entzun eta gero, joan egin ziran basajaun zahar-zahar haregana eta esan:

—Hi, argi berezi eta handi bat ikusten joagu ekialdetik eta hor gagozak zer dan ulertu ezinik. Hik heuk ba al dakik zer dan?



—Zelan arraio jakingo joat ba ezin joazat begiak zabaldu ere egin eta!

Zahar horren berbak entzun orduan, hartu besartean eta beste basajaun guztien erdira eroan eben.

Behin erdiraz gero, argiari adi jarri eben eta buruzagiak begiak zabaldu eutsazan argi berezi hori ikusi eian.

Adi-adi geratu zan basajaun zaharra eta halako baten bere beso indarga biak gora-goraka jasoaz badino:

—Kixmi jaiio dok! Kixmi jaiio dok! Kixmi jaiio dok! Gureak egin jok! Gureak egin jok! Gureak egin jok! Bota naizue Aralarreko haitzetik behera! Bota-bota-bota!

Beste basajaun guztiak harritura geratu ziran eta urtenbiderik ez eukiela ikustean, basajaun zahar horregaz batera, bata bestean atzean, danak galdu ziran betiko, danak bat izan ezik: OLENTZERO.

Olentzero basajauna izanik, herritarren laguna zan. Beste basajaunak hasarre ibiltan ziran sarritan herritarrakaz. Herritarrak baekien basajaunak eurak baino aurreratuko ebiltzala labrantzan eta burdingintzan baina baten baino gehiagotan, zuhurtasunaren bidez, lortu egiten ebezan aurrerapideok basajaunengandik: esate baterako, garia, artoa, errota-harriaren haltzezko ardatza,

burdinea soldatzearen teknikea edo gaztaina orriaren itxuran egindako zerrea.

Horregaitik, Olentzero pentsakor geratu zan beste basajaun guztiak galtzen ikustean eta bere buruari esaten eutsien:

—Ni neu ez, ni neu ez naioak beste basajaun guztiak legez amildegian galtzen, nik neuk maite joadaz herritarrak eta gaur jakin dogun barria jakin behar joek, gureak egin arren, eurenak aurrera egiteko kristautasunaren aro barrian. Horretarako, herrira joan eta barri ona zabaltzen hasiko nok baserririk baserri.

Esan eta egin. Olentzero mendian behera hasi zan herrirako bidean. Atzerik hara argi bereziak jarraitzen eutsan eta lehenengo baserrietara heldu zanean santzoka eta berba indartsuz hasi zan esaten:

—Herritarrok, Kixmi jaio jatzue! Begira horri goiko argi berezi horri, ekialdetik datorren argi pozgarri horri! Gureak egin dau baina orain zeu-ona dozue aro barri hau. Poztu zaitze, poztu!

Baserritarrak asko poztu ziran Olentzeroren berbak entzutean eta esaten ebana egia zala ikustean badino batek:

—Hi, Olentzero, zergaitik ez gozak hi aurretik eta gu guztiok atzetik gabela herriko baserri guztietara eta gero herriaren erdiko harizpera!



—Ba, joatea baino ez jagok! —erantzun eutsan Olentzerok.

Han joiazan baserririk baserri barri ona zabal-tzen eta bat esanda bera ere ez zan etxean gera-tzen, danak Olentzeroren atzean.

Herri guztiko atea jo ebezanean eta danak harizpean alkartu, Olentzero hasi jaken esaten:

—Banan-banan ere esan deusuet baina Kixmi jaio jatzue! Beste basajaun guztiak kontrakotzat hartu dabe barri on hau eta “Kixmi” izena ere horrexegaitik jarri deutso gure basajaun zahar-renak. Esan deusuet baina barriz dinotsuet: beste basajaun guztiak amildegian galdu dira eurenak egin dauala eta. Ni ostera, hemen nozue lagun legez, lehengo aroko azken basajauna izan arren. Etorkizunean zintzo jarraitu gaur jaio barri dozuen salbatzaileari!

Herria asko poztu zan eta jai handi bat anto-latu eben Olentzeroren inguruan. Zenbat gura eta harexen beste jaki eta edaki emon eutsien Olen-tzerori eta euren benetako poza adierazteko bertso honeek egin eta kantatu ere egin eutsie-zan ohitura zaharrari eutsiz:

“Olentzero joan zaigu
mendira lanera
intentzioarekin
ikatz egitera.

Aditu duenean
 Jesus jaio dela
 lasterka etorri da
 berri ematera.

Horra-horra gure Olentzero
 pipa hortzean duela
 eserita dago
 kapoiak ere baditu
 arraultzatxoekin
 bihar meriendatzeko
 botila ardoarekin.

Olentzero, buru handia
 entendimentu garbia
 bart arratsean edan omen du
 bost arroako zahagia.
 Ai urde tripa handia!

Olentzerok, jan-jan eta edan-edanak eginda, honeexek berbok esan eutsazan pozez beterik egoan herriari:

—Banoatzue, lagun izan nozue orain arte eta orain joan noa hortik zehar nonbaiten estal-terera baina ohiturak ohitura izaten diranez, urtero-urteroko Eguberrietan hemendik izango nozue opariz beterik, zahar, heldu eta batez ere ume guztien pozerako. Agur, eta datorren Eguberriak arte!

III

GABON GAUEKO KANPAI HOTSA

Gorbeiatik Orozkorantz dagoan Supilaur kobazuloaren aurreko landan, neba-arreba bi egozan euren ardiak jagoten, Gabon egun bateko egurdartean.

Eguraldi hotza baina ona egiten eban eta ardiak ere zoli-zoli ebiltzan haitz arteko landa-bedar txikia baina gozoa jaten, neguaren hasierako egun-argi laburrenean.

Eguerdia heldu zanean, neba-arrebok, Supilaur kobazuloko atakara hurreratu ziran bazkari sikua egiteko asmoz.

Zabaldu lepoko morral-zakutoa, atara gaztadun otarteko bana, bigilia edo haratuztea gordeaz eta jateari emon eutsien noiz behinka ardo zahatoari txurruplin batzuk eginaz.

Behingobaten egin eben neba-arrebok egun haretako bazkaria baina gose apur bategaz gera-

tzea hobea baino ez zan, etxera itzuli orduan, Gabon gaueko afariari ganosoago ekiteko.

Handik lasterrera, etxera bidea hartzeko egozala, neskeak suge bat ikusi eban euren ondoko ogi-apurrak jan guran edo, eta badinotso bere nebeari:

—Hi, mutil, begiratu egik hona, suge handi bat jaukagu ahotik ezpia agirian ia-ia geure osti-kopetan ba eta!

—Ene, bai barriz! —erantzun eutsan nebeak. Hau suge hau nik neuk dominatuko jonat, ikusiko don!

—Kontuz ibili hadi mutil, badaezpada, parte txarrekoren bat izanean ere, gaur Gabon eguna joagu eta.

Artzain gazteak, itzi bere eskuetako makila mehea, hartu han pagadui baten barda luze bat eta sugea hiltera joian.

Sugea, bien bitartean, Supilaur kobara barrura sartu jakon eta hango barruko sakonetako estarian estaldu.

Artzainak ahalegin guztiak egin ebazan ha sugea jo buru-buruan eta tragetako, baina dana alperrik.

Halakoren baten, kobazuloan barrurantz joi-ala, zer? eta han kobazuloaren sakon-sakonean basajaun bat aurkitu eban ikatza egosten.



Ikaratu egin zan. Hankak dar-dar eukazan, bekokian izerdi larria, gorputzean ikarea, biho-tzean taupada estuak eta buruan zer pentsatu handia!

Egoera horretan egoala, ikatz txondorraren ondotik basajaunaren hots honeek entzun eba-zan oihartzun eta guzti:

—Ez hadi larritu, mutil, ez deuat ezer egingo eta! Hurreratu hadi nire neure ikatz txondorrera. Hator eta esan: “Hire aitak egiten jok nik neuk lako ikatzik?”

—Ez jakiat ba! Baina egur-bardin, danak ere antzerakoak izango dozak! —erantzun eutsan artzainak bildurkilik.

—Ba, bardinak diran ala ez jakiteko, hartu egik esku biak bete ikatz eta atara argitara han hobeto ikusteko!

Artzain gazteak, hartu eban esku biak bete ikatz eta kobearen atakara helduz batera bere arrebeari erakutsi eutsan. Arrebeak ha altxor ederra ikustean badinotso bere nebeari:

—Hi, mutil, zer dakark hortik barrutik?

—Zer ekarriko dinat ba, basajaunak emoneko ikatza!

—Ikatza? —esan eutsan arrebeak begiak zabal-zabalik—, hau urregorria dok ba eta! Joan hadi barriro barrura eta eskatu eiok gehiago, aberatsak izango gozak eta!

Mutila barrien barriz joan zan kobara barrura eta honela esan eutsan hari basajaun ikazginari:

—Hi, nire aitak ez jok egiten honelako ikatzik. Honelakorik ez jagok gure herrian ez eta gurekoen artean ere, herriko ikazginik onenak izan arren. Horretara, emongo deustak apur bat gehiago nire neure etxeko eta herrikoei erakusteko?

—Bai, mutil, zenbat gura eta harexen beste hartu, baina kontuz! Hor koba sakon-sakonean deabrua jagok lo-arrantzaka eta hire zaratetara itzartuten badok, hireak egin jok!

Artzain gaztea, aberastu gurearen aberastu gureaz, fraketako poltsa biak, kolkoa eta sorbaldeetatik dingilizka eukan morral-zakutoa beteten hasi zan urregorritz.

Baina, danaguran, zarata handiegiak egin ebazan eta, jakina, deabrua itzartu egin jakon.

Itzartu bakarrik ez, deabrua oso hasarre plantatu jakon eta orroe-zantzoka hasi zan burduntzi luze bat eskuetan hartuz.

Ha bai zala larrialdia! Artzainak ez ekian zer egin. Eta estualdian basajaunari esan eutsan:

—Hi, zer egingo joat orain?

—Zer egin? Ba ospa egin hemendik lehen baino lehen! Deabruak harrapatzen bahau hireak egin jok betiko! Joan hadi agudo!

Artzainak, itzi bertanbehera urregorriok eta kanporako bidea hartu eban basajaunari esana eginez.

Kobearen atakara heldu eta bere arrebea ikusi ebanean hauxe esan eutsan arduraz beterik:

—Hi, ezin jonat kontatu orain hor barruan gertatutakoa, joan hadi etxera gautu baino lehen eta tertziarako heltzen ez banona Gabon afaria ondo ospatu, nik nahikoa jaukanat atzerik hara datordan deabruari ospa egiten!

Arrebea ikaratu egin zan bere nebearen berbak entzutean, baina ikara handiagoak etorri jakozan handik lasterrera deabrua kobatik urtetan ikusi ebanean.

Neska errukarria negarrez joian etxerantz eta bereengana iritsi zanean hasi jakeen esaten:

—Ene ama! Gure mutila hortik zehar dabil deabruari ospa egiten eta ez dakit Gabon gaua egiteko bizirik etorriko jakun ere!

—Ez estutu! —erantzun eutsan aitak—, gure mutila bizkorra da eta ondo ezagutzen dauz basabideak. Goizago edo beranduago joko dau etxea. Guk errosario errezatuko dogu eta Jaungoikoak gura dauana izan daitela!

Bien bitartean, han ebiltzan, guztiz gaututa, artzaina aurretik eta deabrua atzerik hara pagaperik pagape, mendirik mendi eta landarik landa.

Gaueko iluntasunean ez eben alkar ikusten baina alkar barruntatu bai, eta bata gelditzen zanean bestea ere bai. Horrela ibili ziran luzaroan.

Orduak aurrera joiazan eta mutilak etxera joan gura ebanez Gabon gaua ospatzeko bere buruari esaten eutsan:

—Zer zuhurtasun erabiliko joat nik honi deabru honi eskapatzeko? Mogitzen banok, bajatork gainera, a bai, bajakiat zer egin!

Artzainak pago punta batera igon eban eta handik ahal dan guztian jaurtin bere morrala.

Deabrua, zaratea entzun zan lekura abiatu zan artzaina izango zalakotan baina ezer ere ez.

Gauzak horrela, artzaina konturatu zan deabrua apur bat urrundurik egoala eta ahal danik eta ixilen jaitsi pagotik eta behatzen puntan joian astiro-astiro.

Halako baten arbolapeak itzi eta ailegatu zan artzaina Orozko parteko landa batera baina beste arerio bat agertu jakon, ilargia. Ilargipean ikusi egin eikean deabruak eta halantxe egin eban.

Deabrua askoz gorago egoan baina bere zanko luzeakaz berehala harrapatuko eban mutil gazte ha.

Mutilak deabruaren amorru-zaratak entzun ebazanean, ezin dan lekutik ere indarrak atarata, aurrera jo eban, hur eukalako bere etxea.

Etxekoak ere arduraz beterik egozan. Orduak aurrera, Gabon afaria prest baina ez eukien umorerik ospakizunetarako.


Artzain gazteak ezin eban gehiago eta deabrua gainera etorkola konturatzean zoruan etzuzan bereak egin ebala pentsatuz.

Pauso batzuk bakarrik falta jakozala deabruari artzaina harrapatzeko, zer? eta tan-tan, tan-tan, tan-tan! Orozkoko Olarteko eleizako kanpai hotsa entzun zan, jakina, Gabon gaueko hamabietako mezako kanpai hotsa!

Kanpaiok entzun ziranean, deabrua podere edo ahalmen barik geratu zan eta ezin eutsan ezertxo ere egin artzain guztiz nekatuari.

Deabruak alde egiten ebala ikustean, artzaina, zutundu, Olarteko eleizan Gabon-mezea entzun eta bere etxera joan zan Gabon gaua ospatzera familiako batasunean.





IV

BALZOLAKO GIZON-SUGEA GABON LAGUNTASUNEAN

Negu aurretiko baten, urteko lehen edur-malutak barruntatuz batera, ardietara joan ziran Paulo eta Pello anaia biak.

Ardiak Balzolako kobazuloaren ondoko landan eukiezan, hantxe, Jentil-zubi eta Azlor azpiko landa zeharretan, eta edurra loditu baino lehen etxera edo tejamanara ekarri gura ebiezan.

Han ebiltzan ardiok pilatu guran, bateko txakurrari txistu egin, besteko makilea jaso edurrak mara-mara eragoion bitartean.

Ahalegin guztiak eginda ere, dana zan alperrik. Edurrak, goian-behean, zarratu-zarratu ekiten eutsan eta santiamen baten zuritu zan dana, ardiak ibili ez egiteko moduan.

Ardiei hanka meheak edurtzan sartzen jakezanean, euren artuleak edur-bolaz janzten ziran pisuaren pisuaz ibili ezinik itziz.

Ardiok lehorreratu nahiaren ekina begien bistan egoan, baina ezina bistarago. Horregaitik, Paulok ondobeharrean badinotso Pello anaia gazteari:

—Hi, honegaz edurtza honegaz ezingo gozak etxera joan, pentsatu ere ez. Orduan, horraxe, Balzolako kobazulora eroango joaguz ardiok harik eta lurmendu arte. Zer deritxok?

—Nik neuk ondo! —erantzun eutsan Pellok—. Nire aldian, ez joat sekula honelako edurtzarik ezagutu. Hik bai?

—Hobe ez! Ni neu garrirainoko edurtzea ere ezagututa naiagok, hi jaiobarri hintzala. Orduan, basabehiak eta zaldiak sartu naiazan hortxe Balzolako kobazulo horretan. Gaur ardiak egin beharko joaguzak, osterantzean hotzak hilgo jozak gesu baten gautu egin behar jok eta.

Halantxe egin eben. Aidatu ardiok eta dana-beharrean heldu ziran ardi eta guzti kobazulo haretara.

Behin kobazuloraz gero, ardiak euren artuleak astindu ebezan edur-bolak botateko. Jarraian etzun eta hausnar hasi ziran haitzuloaren abar-roan.



Paulok eta Pellok ere euren soinekoei astinaldi bat emon eta gero, ezarri egin ziren kobazuloaren arratean.

Paulok, sua isiotu eban eta jateko apur bat atara bere zakutotik. Pellok ez eukan soinekoa baino besterik eta esan eutsan:

—Hi, Paulo, zer dala eta ekarri dok hau guzti hau? Jakin egin dok ala gaur gaua hemen egin behar dogula?

—Jakin ez —erantzun eutsan Paulok irribarreka—, baina edurragaz kontuz, edurra zuria dala baltza dok eta badaezpada zuhur ibiltelakorik ez jagok. Nik neuk ere aitagandik ikasita jaukat eta hik heuk ere ikasiko dok nire adinera orduko.

Biak bietara, jan eben Paulok eroandako jakia eta kontu kontetan egozan noizbehinka sugarretan eskuak igurtziz.

Kandela bedeinkatu bat ere isiotu eban Paulok. Honek beti eroaten eban kandelario egunean bedeinkatutako kandela bedeinkatua aldean, behar zanean biztuteko, sinesmen handikoa zan eta.

Loak noiz hartuko egozala, Pellok suge handi bat ikusi eban suaren ingurumaritik ardietarantz.

Zutundu egin zan eta surtatik bertatik ilinti handi bat hartuz, ha suge ikaragarria hiltzen joan zan.

—Zertara hoa? —itandu eutsan Paulok.

—Suge endemoniño bat jagok hemen eta hil egin behar joat.

—Ez, Pello, ez egik hil, hori ere Jaungoikoak egina dok eta!

—Bardin jatak, hil egin behar joat eta kito!

Esan eta egin! Pellok indar guztiaz bota eutsan ha ilintia sugea buruan joko ebalakoan, baina, huts egin eban eta buruan barik buztanean jo eta buztan puntea kendu.

Sugea ezkutatu egin jakon koba barruan. Txori-gorri eta guztiak bota eutsazan sugeari koba barruko iluntasunean, baina alperrik, sugearen gerizarik ere ez.

Gaua igaro eta eguna zabaldu zanean, Paulok joan-etorri bat egin eban inguruetatik eta esan eutsan Pellori:

—Hi, egun eguzkitsua agertu dok eta egurdartean ez bada, arrastirako lurmenak agertuko dozak eta joan ahal izango gozak astiro-astiro etxera.

Halantxe gertatu zan. Arrastian, hartu ardiok eta gau iluntzerako bake-bakean egozan etxean ardi bat esan eta bera ere galdu barik.

Negu luzea ere joan zan eta udabarria etorri zanean, Paulori guda batera joan beharra etorri jakon.

Urrun joan behar izan eban, Luyandoko Malato arbolea baino askoz urrunago. Borondatez kontra baina joan egin behar.

Guda hori luzea izan eta luze egin jakon Paulori, baina halakoren baten akabatu zan gerra hori eta lizentziatzeko eguna ailegatu.

Gabon eguna zan. Eguerdi ostean lizentziatu ebezan gudariok. Poza eta algarea ez zan falta, baina Paulok, begiak jaso eta esan eutsan bere buruari:

—Ni naiagok ona! Gabon arrastia dok eta ez jaukat gaur etxera heltzeko modurik. Aurtengo Gabonak bidean egin beharko joazat. Baina tira, konformatu egingo nok, gerra honetatik bizirik urten joat eta.

Hausnarketok eginda, etxerako bidea hartu eban Paulok. Oinez etorren bakar-bakarrik.

Handik lasterrera gizon ezezagun bat hurre-ratu jakon Paulori eta era honetara berba egin eutsan:

—Zer burutazio darabilk buruan?

—Zein erabiliko joat ba, Gabon gaua etxean egin gurearena! —erantzun eutsan Paulok.

—Benetan ere Gabon gaua heureakaz egin gura dok?

—Hik heuk ere ez dakik zenbat baino gurago neukean Gabon gaua neure etxekoakaz egitea!

—Hori gura badok, plantatu hadi apurrin nire neure lepo-bizkarrean eta nik neuk eroango haut airean! Baina, kontuz, kondizino bategaz: hegaz goazela ez dok esango “arre deabrua” baino besterik, entzun deustak?

Paulok ezin eban ezer ulertu baina, alde batetik etxera-gogo handia ebanez eta bestetik hari gizon bereziari ezetz esaten ausartzen ez zanez, badinotso:


—Ondo zegok, joango nok. Baina badakik hik ni nongoa nazan ala?

—Jakingo ez joat ba! Gogoratzen dok, behin, hi eta hire anaia zelan egon zinien Balzolako kobazuloan gaua egiten edurtza handi bategaz eta zelan hire anaia Pello ha sugea hil guran ibili zuan!

—Bai! gogoratuko ez nok ba!

—Ba ikusi egik nire eskua, hatzamar txikia falta joat. Hauxe dok hire anaiak ilintiagaz kendutako buztan puntea. Oraidino hire anaiarenganako berbak ondo gogoan jeukazat: “bakean izteko sugea ere Jaungoikoak egina dala eta”; horregaitik zorrean naiagok eta eroango haut Balzolako kobaraino.

Esan eta egin! Deabruak apurrin hartu eban Paulo eta honek “arre deabrua” esanaz batera airean egozan.



Gabon egun horretako iluntze aurretxoan heldu ziran Balzolako kobazuloaren arratera. Paulo guztiz zorabioturik egoan eta bere konortera etorri zanean ezin eban sinistu ere egin Balzolan egoanik.

Deabruak Paulori eutsan zorra hobeto bete guran edo, honeek berbok esaten hasi jakon:

—Hi, Paulo, hator kobazulora barrura, hor barruan zeozer jaukat bai hiretzako eta bai hire anaia Pellorentzat.

Joan ziran biak barrura eta han kobearen sakon-sakonean artza bat bete urregorri eukan deabruak gordeta. Horretara badinotso:

—Eutsoz, hartu eizak artza eta bertako urregorri guztiak ondo eginaren pagurako. Ostera, hire anaia Pellori eroan egiok hau garriko gorri hau eta esan egiok oraingoz libratu egin dala. Hi izan hazen kasuan Pello izan balitzok, harenak egin joan!

Ikusiak eta entzunak entzun ondoren, Paulok, hartu deabruak emondakook eta abemarietarako bere etxean egoan.

Ateak jo, etxean sartu eta bizitako guztia konstatu eutsen etxekoei. Hareek harrituta egozan baina pozik.

Danak nasaitu ziranean, Paulok Pellori esku bata lepora bota eta bestean garriko gorria eukala esaten deutso:

—Hi, Pello, hau gerriko hau heuretzat emon jeustak deabruak!

—Nik zertarako behar joat ba garrikoa —erantzun eutsan Pellok—, lotu eiok etxe aurreko intxaurrari!

Halantxe egin eban Paulok. Baina garrikoa intxaurrari lotuz batera, zzzzziiiiissssstttt!!, sustrai eta guzti desagertu zan ha intxaur hondoa lainoetan galduz.

Danak ikaratu ziran eta badaezpada, hareek urregorriak ere, etxerako itzi beharrean, abadeari eroatea pentsatu eben. Eta esaten da, hareek urregorri guztiak urteroko Gabon gaueko meza ordaintzeko erabili zirala.

V
LAMIEN HONDAMENDIA
GABON EGUNEZ

Udabarriko egun eguzkitsu baten, mutil gazte bat ebilen artoa ereiten bere baserritik urruntxu, baina dei barruan.

Ereitza amaitu orduan, etxerantz joian erreka ertzeko gurpidetik udabarriak zelaiari jantzitako soineko polita ikusiz.

Halako baten, han bere etxera orduko egoan errotako andaparan lamiak ikusi ebazan ulea orraztuten.

Mutil gaztea asko poztu zan eta lamiok hobeto ikusteko, astiro eta ixilik hurreratu zan eurengana.

Baina, errotako andaparara heldu zanerako plisti-plasta! lamia guztiak urera salto eginda egozan eta ezin ikusi.



Urpera ere begiratu eban baina han ez egoan arrankariak baino besterik eta badino berekautan:

—Hau dok izatekoa! Gaur euki joat ondo lamiok zelakoak diran jakiteko eta orain ezer ere ez, atzera lehenean!

Penaz beterik geratu zan ha mutil gaztea eta errotari eperdia emonaz batera, orrazi bat aurkitu eban errota-harri baten gainean.

Pozarren hartu eban orrazi hori eta urregorizkoa zala konturatzean, arin baino ere arinago ekin eutsan etxerako bideari.

Behin etxeraz gero, gorde egin eban ha orrazia leku ezkutu baten, estari baten eta etxekoei esan eutsen:

—Ene! Errotan lamiak ikusi dodaz eta hurre-ratuz batera salto egin deustie andaparako urera, baina, urregorizko orrazia ostu deustiet eta ondo gorde!

—Semetxoa —erantzun eutsan aitak—, hori orrazi hori ekarri egin dok baina bakez libratuko ete haiz beragandik?

—Zer ba?

—Ba, egunez ez, baina gauez euren orrazi bila etorriko dozak horiek lamiok eta mehatxurik ez jok faltako!

Mutil horrek adi eta erne entzun eutsazan bere aitari aholkuok. Gau iluntzea heldu eta abema-

rietako kanpaiak ixildu ziranean, etxeko atear ondo itxi eta afari aurreko beharrak egitean ekin eutsien etxeko guztiek.

Handik lasterrera, zarata eta alauri bildurgarri batzuk entzun ebezan. Lehenengotan ez ziran hainbeste ikaratu baina bildurkilik geratu ziran etxeko danak lamiongandik ha abesti antzekoa entzun ebenean:

“Mutil gazte itsusia
 ekar gure orrazia
 bestela txarto ibiliko da
 zueneko askazia.”

Berbok entzutean, mutil horrek hartu estarian gordeta eukan orrazia eta etxeko aterantz abiatu zan bildurraren bildurrez odolak ur egiteko moduan.

Etxeko atear zabaldu eta lastargi bat isiotu ebanean, lamia guztiak bere zain eukazala ohartu zan.

Luzaroago itxaron barik, airean bota eban urregorritzko orrazi hori eta jaurtiz batera alde egin eutsien lamia asaldatzaileok gaueko iluntasunean.

Mutilak ez eban galdu gura aukera hori lamiak zelakoak diran jakiteko eta lastargi eta guzti joan jaken atzerik hara bide arlo baten, baina alperrik,

gaueko iluntasunak irentsi egiten eutsan bere lastargiaren argi indargea.

Etxerantz etorrela, ustekabeen, neska eder bat aurkitu eban berari adi-adi eta irribarreka han intxaurpe baten.

—Ene!, zer egiten don hemen bakar-bakarrik gaueko tertzio honetan? —esan eutsan mutilak.

—Gose nok!

—Gose? Ba, hator neure etxera.

—Bai baina, hire etxekoak zer?

—Ez don ardura, honezkero ohean jagozan. Hator, zeozer opatuko donat!

Sartu ziran etxera, gero suetera eta txitxiburduntzia egin eben. Gero mutilak esnea imini eban egosten maskelu baten behe-suko laratzan eskegita.

Berba eta berba egozan biak bietara eta halako baten ha neska ha hasi jakon mutilari esaten:

—Txuria gora, txuria gora, zuria gora!

Mutilak orduan, maskelua kendu eban su gainetik eta harrira eroan, gainez egin eta alpe-rrik galdu ez egiteko esne ederra.

Orduan hak neskeak, nor dan esan barik, esnea eskatu eutsan mutilari mihinagaz ezpanak igurtziz eta esanez:

—Hori maskeluko esne guzti hori emoten badeustak, sekreto bat kontatuko deuat!

—Zein? —itaundu eutsan mutil gazteak.

—Ba, lamiak zelan galtzen diran betiko!

—Hori? Ba, horixe gura jonat. Gaur bildurralkoa pasatu jonat eurak dirala eta ez dirala. Eutson esne hau eta bota sekreto hori.

—Ba, lamiak galtzeko hauxe egin behar dok: San Juan egunean jaiotako zekor bikotea hartu, buztartu eta Gabon egunean gaueko hamabietan errekek guztiak tragastu gurutzeak-gurutzeak eginaz!

Mutil gaztea ikaratuta geratu zan haren neskearen jakituria eta berba gozoakaz. Gainera maitemindu ere egin zan, beste inor ez legez.

Gauerdian neskeak alde egin eutsan eta mutila pozez zoratuta sartu zan ohean itzarrrik ametsetan.

Hurrengo egunean, jagi zan mutil hori eta inoiz baino pozago sartu zan sukaldean eta badi-notso bere amak:

—Atzo zer?

—Atzo? Ba, orrazi hori boteaz batera alde egin eustien lamiok, baina etxerantzean neska eder bat ezagutu neban, afaria emon, esnea ere bai eta lamiak galtzeko sekretoa ere esan deust. Ez hori bakarrik, handiena zer hau da: maitemindu egin nazala eta ezkontzekotan gagozala!

—Zer dinostazu, seme? Ziur zagoz neska normalea dana? Ez ete jatzu izango holako lamiaren bat?

—Ez, ama! Neska eder bat da, polit-polita, ulegorria, gona luzeduna, alaia, adikuna gozokoa, irribarretsua, galanta...!

—Baina begiratu deutsazu oinetara?

—Ez, goneagaz estalduta euki dauz eta!

—Ai semetxoa! Kontuz ibili zaitez, eta hurrengo ikusten dozunean aditu eiozu oinetara, badaezpada!

Esan eta egin. Handik egun batzuetara, egun argiz, errotako horma gainean ezarrita aurkitu eban mutilak ha neska polita.

Hurreratu jakon eta berba gozoak esaten eutsazan bitartean oinetara begiratu eutsan eta ene! ahatearen oinak eukazan!

Mutilak ez eutsan adikuna txarrik bota ez berba itsusirik esan baina bihotzeko tristurea inoiz ez lakoa zan.

Neskeari agur esan eutsanean, solora lanean barik etxera joan zan erdi negarrez eta guztiz bihozberatuta.

—Ze gertatzen jatzu? —esan eutsan amak.

—Ai amatxo, arrazoia zeunkan, neska hori lamia da, nik daukat eukiteko disgustua! Banoa ohera, ez nazalako gauza gaur beharrik egiteko!

Oheratu bakarrik ez, gaixotu ere egin zan ha mutil ha disgustuaren disgustuaz eta etxeakoak zer egin ez ekiela egozan.

Mutil gaxoaren amak, beste urtenbiderik ez eukala eta, joan semegana ohera eta lamiak galtzeko sekreto argitzeko eskatu eutsan esanez:

—Seme, zein dok ba horreek lamiok galtzeko sekreto?

—Esango neuskio beorri baina gero?

—Gero zer? Behin galduz gero ez jagok gero-
korik!


Amaren eskarietara, mutilak argitu egin eutsan sekreto hori. Amak herrian zabaldu eban barri hori eta herri osoa hasi zan San Juan egunean jaiotako zekor bi aurkitzen.

Kostatu egin jaken baina tira, azken baten aurkitu ebezan eta buztarrirako hezi ere bai zekorrok Gabon egunean egiteko ekintzarako.

Urtea aurrera joan ahala, negua eta beragaz batera Gabonak ospatzeko garaia ere heldu zan.

Herritarrak, bakoitzak bere etxeko Gabon-afaria egin ondoren eleiza aurrean alkartu ziran. Hartu San Juan Egunean jaiotako zekor biak, buztartu eta Gabon egun horretako gaueko hamabi hamabietan errekek gurutzetara tragastu ebezan ilargi betearen argipean eta kontatzen danez, halantxe galdu ei ziran lamiak betirako, haxe izan ei zan lamien hondamendia.





VI GABON-HARIZKO SOINEKOA


Izarori Izaro izena eman baino lehen, ba ei ziran izan ere lamiak isla horretan, Mundaka eta Bermeoko aspaldidaniko arrantzaleen esanetatik dakigunez.

Lamiak nasai ibilten ei ziran ibili ere Izaroko askatasunean, baina urteak joan urteak etorri, kristautasunaren barri Euskal Herrira etorten hasi zantetik, larritasun eta artegatasuna baino ez egoan lamien artean.

Kristautasunaren zabalkundeak, kurutzez bete ebazan Euskal Herriko mendi-tontor gehienak eta eleiz-baseleizak eregi herri guztietan.

Herrietan ezeze, Izaron bertan ere 1422an komentu eder bat egin eben Prantziskotarrak.

Komentua egiten hasi ziranean, lamiak izutu egin ziran eta ordurarteko bakea galdu.



Halan eta guztiz ere, ez eben islea itzi eta harik eta komentua amaitu arte sorots egiten eutsien praileei Izaroko itsaslabarrerik hara.

Prantziskotarrak komentua amaitu eta eleizdorrearen puntan ekialdeari adi harri-landuzko kurutzea egin ebenean, sorots egiteari itzi eta amorru bizian aldendu ziran lamiak, nora? eta Mundaka eta Bermeo bitarteko itsas ertzera.

Komentuak indar handia hartu eban. Praileak apaltasunean bizi ziran. Biziteko lain egiteko, batzuk eskean ebiltzan, beste batzuk, komentuari deusala egoan harrizko gela baten, inguruetako gaixo-kutsakorrak zaintzen eragoioen, gainetikoak labrantzan.

Labrantza handiegirik ezin eitekean egin, Izaro, izan ere handia ez dalako, baina hegoalderantz daukan eguzkibegian lihoa ereiten eben.

Edonork ez eukan euki ere aldi haretan ehuna egiteko tresnarik, baina Prantziskotarrak bai, inguru guztikoen eta batez ere lamien enbidiarako.

Lihoa erein, ernarora etorri, hazi eta heltzen zanean, linaza guztia ebagi, sikatu, urean beratu, sikatu barriro, eguzkitan edo labean, trangeaz jo-jo egin eta burdinazko sarrantxa bidez liho-azalak bota mami-haritsuagaz geratzeko. Lihomamiagaz amilua egiten zan eta ondo hazitu ondoren goruetan egin haria lortzeko. Behin

haria eginez gero, hari-bolak edo eta harilak egiten ziran eta bihurdurak kendu. Gero hartu hari-bolak eta egosi egiten ziran urera surteko hauts-iduria botata, lexia balitz legez, hari zuria lortzeko. Behin honaz gero, ehuleak ehuna egiten eban jarraian edozelango soinekoak egin, erabili edo eta saltzeko mantentalde.

Negua zan goruetan egiteko tertziorik egoki-ena, egun laburraren ondoan gau luzeak asti gehiago emoten eutselako.

Lihotik lortutako haririk onenak Gabon egunerako izten ebezan eta Gabon eguna heltzen zanean, ehunik onena egiten eben komentuko ehuleari beste guztiak ere lagunduz.

Gabon eguneko ehunaz egindako soinekoak, apartekoak ziran eta soineko hori eroanez gero ez ziran bildur ere izaten, Gabon egun handiaren babesa eukelako.

Bestaldetik, lamiak geroago eta artegago egozan eta azkenean Izarotik alde egin behar izan eben. Lamiok, amorru bizian egozan islea itzi beharrez gain praileen indarra eta oparotasuna ikustean.

Izaroko lamiak polit-politak ei ziran, ule luze eta gorriskadunak, oinak arrain-buztanezkoak eta, jakina, igerilari trebeak.

Atomatu ere egin ziran Izarora joaten, baina komentuko eleizako gurutzea ikusten ebenean,

ezin aurrerago egin eta barriren barriz bueltatzen ziran itsas ertzera.

Izarora joan ezinaren ezinean, Mundaka eta Bermeoko itsas ertzeko haran txikian bizitea erabagi eben eta Lamiaran izena jarri.

Hantxe bizi ziran norberarenean barik inorenean, enbrollu handi barik badaezpada zein ingurukoren bat erantatu.

Mendia hartuz joan ziranean, igerian ezin baeben narraz egiten ebezan inguruetarako joan-etorriak.

Egun baten, Errosapen, Lamiaranetik urrun barik, deibarruan esango genduke, beste lamia batzuekaz egin eben topez tope. Eta ene!

—Nortzuk zaituegu?

—Nortzuk izango gara ba, Errosapeko lamiak!

—Eta zer dala eta ez dogu alkar lehenago ikusi, hortxe, Izaron bizi izan gara eta?

—Ba, gu ez garalako zuok lakoak. Aditu, guk ahatearen oinak doguz eta ez dakigu zuok bestean uger egiten. Gu, garrizgora zuon antzerakoak gara baina garrizbehera ez, eta ezin gintezke ibili zuok legez igerian, guk putzu bat daukagu hemen Errosapen eta nahiko estaririk dogu gizakiak datozenetarako.

—Ai ene! Dendik ere, eskerrak zuok aurkitu zaitueguna, bestela zer egin ezean egon gara,

Prantziskotarren komentua dala eta, Izarotik alde egin dogunetik eta hona.

Lamia bitzuen enkontrurik hona, lagun egin ziran eta Izarotik etorritakoak gehiago ziranez, Lamiarango Zizili aukeratu eben lamien buru.

Urteen joanean, Lamiarangoak batez ere, Murgu-haitzaren ertzetik aurrera egin eta Izaro inguratu ere egiten eben.

Egun baten, Prantziskotarren komentuko sukaldaria ortuaria hartzen ebilen Izaroko baratzean. Abitu eta guzti egon arren ez zan mezako prailea. Gizon morroskoa zan, lerdena eta bizigurekoa.

Ortuariok hartu eta komentorantz joiala, Zizili lamiak txistada bat egin eutsan. Sukaldariak, ikusi edo barruntatu, aurrezdik ere egiten eban baina ezelako kasurik egin barik.

Egun horretan ostera, adi-adi geratu jakon Ziziliri eta bere barruan indar bi bizi izan ebazan. Bata komentura joatekoa eta bestea itsasora saltu egitekoa.

Burutazinoak burutazinoaren gainean euki eta gero, itzi bertanbehera ortuariok, erantzi abitua eta saltu egin eban itsasora Ziziligaz egoteko.

Zizili lamiak hori ikusi ebanean, itxaron egin eutsan apur baten, baina aldamenera etorri ahala, eskapatu egiten eutsan Lamiarango ertzerantz.

Praile-legoa etorri etorren igerian baina Zizilik jolasean eragoiola ikusi arren, aurrera egin eban eta konturatu orduko Lamiarango hazduian egoan.

Zizili hantxe eukan itxaroten irribartsu. Legoak igeri luze osteko arnasestua eta bihotzeko taupadotsak bere nasaitasunera ekarri ebazanean esan eutsan:

—Zertarako ekarri nozu honaino?

—Ba, zeugaz nasaigo egoteko hemen lehorrean. Zer ba?

—Zer ba dinostazu? Badakizu arrasti erdia baino gehiago dana eta komentura joan behar dodana gautu baino lehen.

—Ja-ja-ja! Hori ikusiko dogu!

—Zelango ikusiko dogula?

—Ba gaur, hemen geratu behar dozu geugaz, ja-ja-ja!

Praile-legoa orpoetan har barik abiatu zan uretara salto egiteko baina santiamen baten agertu jakozan Lamiaran eta Errosapeko lamia guztiak eta alauri artean eroan eben euren kobazulora.

Behin kobazuloraz gero, han egoan legoa lamia guztiak oboan-oboan ibili eta begiratzen eutsiela.

Egon, bildurtuta egoan, zelan ez ba? Baina burua txapela eroateko bakarrrik ez zala pentsatuz, hauxe esan eutsan bere buruari:

—Hau dok hau izatekoa! Bururik ez daukanak hankak erabili behar, baina orain hankarik ere ez. Hemendik ezin joat eskapatu harik eta egunsentia etorri eta lamiok potere barik geratu arte. Zer egingo ete joat alba edo argi-kanpaietararte? Bai! Bajakiat zer egin: gure komentuko ehuleak ehuna egikeran abesten daben lihoaren kantuo-tsa atara!

Esan eta egin. Hasi zan kantuo-tsean eta lamia guztiak liluraturik eukazan. Lihoaren abestia amaitzen zanean, barriren barriz hasten zan lamiak lozorroan ipini arte.

Egunsentia etorri eta komentuko alba-kanpaiak entzun ebazanean, inizitua baino ere arinago urten eban kobazulotik eta lamiak konturatu orduko Izaron egoan.

Izaron oinak imini ebazanean inor itaunka hasi baino lehen, praile-piorra aurkitu, belaunikatu eta konfesatu egin zan egindako haronakoa eta gaisetikoak argituz.

Autortu eta nasaitu zanean, praile-piorrak aholkuak emon eutsazan hurrengo baterako esanez:

—Aitu egik, mutil! Izaro ingurua lamiaz beterik jagok eta ez egik uretara saltorik egin eta gitxiago Lamiaran edo Errosapera joan Gabon egunean egindako hariaren ondorengo soineko barik, entzun deustak?

—Bai, aita Martin —erantzun eutsan legoak burumakur—, arrazoi guztia dauka berorrek eta berorri kasu egin izan baneutsa ez neban ez hau estukura eta afrontu hau pasatuko. Hurrengorako kontutan hartuko dot, beitso nire gizon-berbea.

Izaroko komentuan gauzak nasaitu egin ziran baina lamiak ez egozan batere pozik eta Zizili aurreti zala, deiak ezeze, alauriak ere botaten ebezan praile-legoa ez jakelako etorten.

Legoak, bere priorrari berbea emonda euki arren, ezin eban Zizili lamia ahaztu eta beraganako intzigua kendu.

Udako idergibete baten, beste praileak oheratuta egozala, harek legoak Ziziligana haronako bat egitea pentsatu eban.

Pentsatu eta egin. Baina oraingoan, badaezpada, Gabon egunean irundako liho-harizko soinekoa jantzi eban eta uretara salto egin.

Soinekoak enbarazu egiten eutsan baina halan eta guztiz ere zoli-zoli eta eraz heldu zan Errosapera hatzak eta behatzak apurtxo bat kipututa euki arren.

Errosapeko lamiak asko poztu ziran eta oraingoan eurak hasi ziran praile-legoa entretenitzen Ziziliri parte emoteko.

Lamiak legoaren oboan-oboan ebiltzan irribarreka eta zirriginen, inoiz ez legez eta kobazulora barrura eroan guran ibili ziran.

Legoa konturatu egin zan eta santiamen baten esku biakaz egin lamia-hesian arrate bat eta galapan hasi zan Lamiaranerantz.

Horretara, atzerik hara jarraitu eutsan Errosapeko lamien buruak eta ezin harrapatu izan ebala ikustean alaurika eta zantzoka inoan:

—Eup, Zizili Lamiarangoa!

—Zer gura dona Errosapekoa?


—Hortik zehar doan praile-lego horri bota eiona lakirioa!

—Zelan botako jeutsanat ba lakirioa, Gabon-hariz egineko soinekoa jaroan eta!

Era horretara libratu eban bere burua praile-legoak eta aurrerantzean ez zan gehiagotan hurreratu lamietara.



GAZTARO BILDUMA
GAZTARO BILDUMA
GAZTARO BILDUMA



VII GABONAK AITITA-AMAMEN BASERRIAN

Gorbeia mendiaren inguruko herri txikitxo baten, edurrak daragio mara-mara goian behean. Gabonak datoz eta ia dana dago prest aitita Pello eta amama Bixentarenean.

Pellok bere baserriko hegal-itaxurepe guztiak egurrez beterik daukaz negu luzerako. Gabonkariak dirala eta, aspaldirik daukaz batuta karakolak eta kamarako goitegian eskegita zakuto baten. Hurrak eta intxaurrak ere zumitzezko artzan daukaz zabal-zabal eginda, gabonetako intxaur-saltsa edo eta beste menester batzuetarako.

Bixentak ortuko azarik ederrenari botata daukotso begia, aurtengo leitza eta edurtzen ondorioz erreinik izan arren. Kapoiak ere baditu mardo-mardo salako kaponadan. Gabon-madariak, banan-banan ipinita daukaz euren logelako

eskapolotaren gainean, umo-umo egin dakiozan, gordinik zein konpotean jateko.

Garrantzitsuena, labesua. Sua Pellok egin deutso otegurraz, baina ogi-errariaren atzera-aurrera Bixentarena berberarena da. Lehenengo, labea tenplatzeko, artoak sartu dauz eta gero ogi, pamitxa, tremes, mokots edo morrokotarainoko guztiak. Hau guzti hau Gabon bezpera-bezperan.

Baserriari dagozkion gabonkariak prest-prest dabez, gainteko ezgauzak seme-alabengandiko gabon-otzaretan helduko jakez.

Imanol eta Itziar, lobetarik txikienak, irrikitan dagoz aitita-amamanean gabonak ospatu eta lo bat edo beste bertan egiteko.

Etorri da, azkenean Gabon eguna. Imanol eta Itziar zoratuinik daude pozaren pozez eta bazkaria ahoan sartu orduko baserrirako ditean daukaguz, tipirrika, arteak ere hartu ezinik.

Joan dira eta egun argiz heldu baserrira. Gai-neko txera, besarkada eta mosuak! Umeak pozik eta nagusiak pozago. Apurka-apurka baserria beteaz doa, azkenerako elia, aitita-amamak euren seme-alaba eta lobez inguratuta. Ederra zer da hori e?

Gaulendian, gabonetan ilundu ere arin egi-ten dau eta, sutean alkartu dira danak. Amama Bixenta egurdun txapa aurrean dabil lapiko eta



kazulei eragiten eta aitita Pello supazterrean, zizeiluan jarrita, laratzari beharra emoten.

Imanolek ez dauka pazientziarik eta ikastolan entzundako gabon-ohiturez gain, gehiago jakin gura dauz eta badinotso aititari:

—Aitita, zergaitik ez deuskuzuz kontatzen zure ume denporako gabon-ohiturak?

—Hobe ez, Imanol, eta gustura gainera, afari aurretik zenbat gura eta harexen beste asti daukagu eukin ere eta.

Beitu, lobatxuok. Ni txikia nintzanean beste era batera bizi ginan eta, jakina, gaur ez lako gauzak egiten genduzan. Egia esan, gaur ere ez dira ohitura zahar danak galdu, eta egin ere ez daitezela egin, nahiz eta kale-bizitza nagusitzen joan.

Nire haurtzaroan, gabonzuzia isiotuten eban gure aititak eta honek bere zera dauka, bere zentzuna.

Gure aititak esaten euskun Gabon egunetik San Juanetakora eguna luzatzen joiala eta behin haraz gero laburtzen. Horrexegaitik ospatzen ziran sua eginaz. San Juanetan, solorik solo galtzupoilak isiotuta “San Juan Bagilean” kantatuz eta gero sugarrak eginaz eta Gabonetan gabonzuzia surten isiotuaz.

Gabonzuzi enborra basotik ekarteko, San Juan egunean jaiotako idi-buztarria behar izaten

zan. Hau dala eta, ipuin bat ere kontatzen euskun. Zein? eta hauxe:

—Behin, batenbat joan ei zan gabonzuzitan basora. Haritz enbor lodi eta lakazduna aurkitu baeban ba ze, ezin erdibituta ebilen. Burdin-ziriak sartuta eukazan erdibitzeko eta haretan, eleizako abemariak! Ene! Jentil indartsu bat hurre-ratu jakon eta esan:

—Hi, gizon, ez dakik ala gaua gauezkoentzat dana?

—Bai, bajakiat, baina gabonzuzitan etorri nok eta ezin joan neintekak bera barik.

—Ja, ja, ja. Idiak San Juanetan jaioak diralako, itzuliko dozak etxera baina hi eta enborra hemen geratuko zarie, hireak egin jok, mutil!

Hak gizonak, bere burua galdata ikusi ebanean, ahoz barru errezuak baina ahoz kanpo zuhurtasuna erabiliz erantzun eutsan:

—Hi, zera esango deuat, higaz geratuko nok baina indartsua hazenez sartu eizak hire hatzamarra hemene ziri bien arrankala honetan eta hik eskuz eta nik ziriak mailuaz joaz berehala erdibituko joagu haritz enbor hau.

—Bale! —erantzun eutsan harek jentilak barreka zilbotari eutsi ezinik.

Gabonzuzitan joan zan gizonak, ziriak barrurantz jo beharrean, kanpora atara ebazan eta

jentilari hatzamarrak harrapatu. Orduan, idiei aida-
-aida esanez, orpoetan har barik jo eban etxea.”

Gabonzuziaren suaz aparte, erreta geroko hauts eta iduriak soloetan zabaltzen ziran San Esteban egunean, koxitza onak lortzeko eta hauts-iduriok gurutzetara botaz gero, pizti txarrak uxatzeko ere ona izaten ei zalakoaren ustea egoan.

Zer, gustatzen jatzue?

—Bai aitita, kontatu, kontatu gehiago.

Aititak, suari jaramoten egoanez, ilintiak erre ahala surtara arrimatzen ebazan eta halako baten eskuetan hartu surteko ilinti bi eta badino:

—Aitu, Imanol eta Itziar, gaurko egunez, hone-lako ilinti bi hartu eta amatatu ondoren, kortara eroaten genduzan ganaduak esne arazorik ez izateko eta gero oilategira eta azkenean solora eta behin soloraz gero zoruan ipini gurutzetara pizti txarrak uxatzeko.

—Aitita —erantzuten deutso Itziarrek—, horreek kontuak izango dira ezta?

—Bai, jakina, baina beste argibiderik ez baegoan zer egingo genduan ba?

Pello pozarren jabilke kontu kontari eta umeen egarria ikustean ekin eta ekin egiten deutso.

Beste sineskera batzuk ere kontatuko deutsuedaz. Begira, Gabonetan eta San Juanetan ere, iturriko ura ere ona zala uste izaten zan osasunez

ibilteko. San Juanetan, epelago egoten danez, goizeko inontzean eta erreketako uretan oinak bustitea ona zala esaten eben lehenagokoak. Gaur barre egiten dogu baina botikarik ez egoanean, zer egingo eben ba? Zeozer asmatu behar!

—Aitita —badinotso Imanolek—, zure ume denporan Olentzerok ekarten eutsun oparirik?

—Je, je, je. Opariak? Bai, zera! Lehenengo eta behin, gure haurtzaroan, erregenak bakarrik egoten ziran, egoten ziranentzat. Hona gure base-rirra, ailegatu ere ez ziran egiten erregeak. Bateko edurragatik, besteko jostailuak amaitu, beti egoan tekla edo allegoren bat erregenak barik geratzeko.

Orain zuok biak dozuez. Olentzero eta erregenak. Ikastolak sortu ziranean indarbarritu egin jakun Olentzero baina erregeak ere ezagutu beti ezagutu doguz, aitu ezpabere erregenetako kanta famatua: “Apalazio zalduna, hiru erregeen eguna...”

Apalazio esan deusuet, eta bai, hori eta urtebarrietako beste kanta famatua: “urte barri, txarri belarri, daukanak eztaukanari, nik eztaukat eta niri ekarri”, horreek ziran gure poza. Etxerik etxe joaten ginan koplok kantatzen eta aginaldoak eskuratzen, eta pozik!

Kontuak kontu, afaltzeko ordua etorri da eta santiamen baten plantatu dira danak mahai inguruan.

Ohitureari jarraituz, aitita Pellok errezuz be-deinkatzen dauz mahai eta mahaikideak eta jaten hasteko baimena emon baino lehen badino:

—Urtero-urtero legez, txakur amorratuaren kontrako erremedioari ekingo deusat, adi egon batez ere zuok gaztetxuok.

Hartu ogi bat, aiztoaz gurutze bat egin azpi aldetik, ebagi lehenengo ogi-kuzkurra, zati horregaz aitearen egin, mosu bat emon eta mahaiko mantelpean gordetzen dau, jarraian “on egin deizuela” esanaz.

Mahaian danerik dago, baina amama Bixentak orio-azea ekarri dakar mahaira ketan-ketan, entremes artera eta aititak:

—Ez ikaratu, guk amamak eta biok gorde egiten dogu gure aurrekoen ohiturea eta apurtxo bat baino ez bada ere, orio-aza altzi bat jaten goaz. Orio-azea, berbeak berak dino, orioaz ego-sitako azea da eta ez koipeaz. Gaurko eguna, Gabon eguna, bijilia zan, gaur ere bai askoren-tzat, eta gorde egin behar izaten zan haragirik jan ez egiteko eleiz-agindua. Bulda erosita eukiteak ere ez eban balio egun seinalatu honetan. Aitu norainokoa izango dan orio-azearena, kanta eta guztia dauka:

“Aita Juaniko
 seme Periko
 zer daukak afaiteko?
 Orio-aza gozo gozoa
 opil beroaz jateko”

Gehiago oraindino, amama Bixentak karakolak ere ipini deuskuz eta janari hori ere bijilia gordeteko asmatua da, ez dalako ez okelea ez arraina.

Kontuak kontu, afariak aurrera egin ahala, aitita Pellok ume guztien intziguak argitzen darraikio. Postreetara heldu diranean, amama Bixentak beste kazula-lurrezko bat ateraten dau mahaira eta badino Itziar gaztetxuenak:

—Zer dan baino ez da hau morokil antzeko gauza ilun hau?

—Zer izango da ba —erantzuten deutso amamak—, intxaursaltsea, gure betiko gabon postrea.

Tira, orio-aza eta karakolei baino mira handiagoa egin deusie intxaursaltseari eta probatu gitxienez danak egin dabe. Gero gabon-madarizko konpotea ere dastatu dabe. Nagusitxuenak eta helduak txurruplin apurtxo bat ere bai, jakina, batengoagaitik?

Afal ostean, batzuk kartetan, beste batzuk kontu kontetan, armonia ederrean daragoioe, batengoagaitik erlojuari lepoa emonda.



Gau horretako orduak bete behar eta, Pellok bere Gabon-ohiturak kontatzeari daragoio supazterrean. Bateko Natibeteko txokolatea, besteko inozenten eguneko bromatxoak, marijesiak kantatzeko usadioa, gabonzaharrak, urtebarriak, erregenak eta zelan ez, Olentzero.

Kontatuak kontatuta ere, umeak ezin dira emendatu eta aititaren mihiari tira eta tiraka dabilta.

Pellori ere bere ohitura-iturria agortuz joako eta azken kontu legez, berak ere ezagutu ez dauan bat kontatzen hasten da adurra dariola dagozan iloben gozamenerako. Beraz, ohitura zahar-zaharra benetan.

“Aitu gaztetxook —dinotse—, kontatuko deutsuedana, egin ez dot sekula egin eta egia danik ere ez dakit, baleiteke kontu hutsa izatea ere, baina entzunda hauxe daukotsiet nire aitari eta.

Gabon zahar gauean, afaldu eta gero, hamabi hamabietan, fetxoriak egiten ei ziran sasoiko gazteloen artean. Bateko, gurdiak eskegi arbola edo balkoiko balaustretatik, besteko bedar-metak apurtu, solo-latak zabaldu eta holakoak.

Baina, handiena baten hemen Uriondon gertatu zan. Hau egia da gero e! Nik neuk ere gaineko bildursartua bizi izan neban fetxoria hori dala eta ez dala.

Urtebarrietan jakin genduan dan-dana. Gabonzaharretako hamabietan, auzuneko gaztelo batzuek asto bat hartu eben eta eleizportalera eroan. Gero, astoaren iduneko estukina edo erramala kanpandorreko kanpai nagusiaren sokeari lotu eutsien. Horri gitxi eritzita, hari astoari, pausu bi edo hirutara, bedar sikua ipini ez eutsien egin ba! Jakina, astoak ha bedar sikua jan guran kanpaiaren sokeari tira eta tira egiten eutsanez, ha zer zelako kanpai hotsa atara eban! Auzuneko guztiok buruko uleak ere arteztuta emon genduan gauaroa. Urtebarri goizean, dana zan barrea baina estukuralakoa bizi izan genduan!

Kontu bitxi hau entzun ondoren, etxeko gazte-txuenak, oinetakoak erantzi, supazterrean itzi, “gabon” esan oherantzean eta loak egiten joan dira Olentzeroren oparien itxaropeneko ametsean.

*Zubaitz handi eta onak
bere sustarrak sakonak
oles aroan bizi guztiok
Eguberri zein Gabonak.*

Hiztegia

abaro: gerizpe, ezkutu

abemariak: kristau aroko iluntzetako eleiz-
-ermitetako kanpai hotsa

aginaldoa: oparitxoa, saritxoa, propina

agudo: arin-arin, bizkor, atoan

ahoa askatu: berbetan egiten hasi, berbaz hasi

alauri: ahots-zarata handi eta luzeak

aldia: bizitzea

allego: aitzakia, diskulpa

altzi: apur bat, dariolako haritxoa

amatatu: itzali

amildegi: troka, barranku, prezipizio, abismo

amilua: liho jo-jotik ataraten dan estopa, gero iru-
nez haria egiteko

andapara: errota ondoko ur presea, indar hidrau-
likorako

apurrin: beste baten bizkarrean, eskuak saman eta
hankak garrian dirala

arrankari: amuarrain

arrasti: arratsalde

arrate: sarrera-ahoa (kobazulo, esparru, barruti eta
abarretan)

artagarau: arto garau

arteztu: zuzen ipini

asaldu: amotinatatu

askazia: senideak, etxeakoak

- ataka:** atea, ataria
- atoan:** momentuan, arin, berehala
- atomatu:** atrebitu, ausartu
- aurrerapide:** adelantu
- bai barriz!:** "si por cierto" gaztelaniaz
- balaustra:** egurrezko edo burnizko balkoietako hesia
- barda:** arbola-errama punta adar txikiagoakaz
- barruntatu:** sumatu
- behingo baten:** arin baten, berehala
- beitso:** hartu bei berorrek (berorika)
- berbagura:** berba egiteko gogoaz
- berbaikuna:** berba egiteko modua, hitz egiteko era
- berbalotsa:** berbaz batenbatzuk, jendea mar-mar hizketan
- beren beregi:** espreski, propio
- bijilia:** haragirik jan ez egiteko eleizearen agindua
- bildurkilik:** bildur handiaz, bildurrez
- bildursartua:** barruan kendu bako bildur handia
- bitzuk:** bikote bat eta bestea (batzuk, bitzuk, hiru-tzuk...)
- bulda:** bijilia gorde ez egiteko baimen-txartela
- daukotsiet:** deutsiet
- dei barrua:** deituz gero entzuteko lekua
- dendik ere:** dana dan, gitxienez
- ditea:** gogoia, asmoa, plana
- dui:** -di, -ti, (mahasdui, mahasti...)
- einik:** -einean, -t(z)eko zorian, beharrean

elia: jende asko, gauza ugari, ganadu taldea (basa-behiak, zaldiak, mandoak)

emendatu: bete, asetu

enbrollu: nahaste

eragon: jardun, ekin

erantatu: mogitu, espabilatu

eraz: ondo, garaiz, tertzioz

ernaroa: ereindako hazia ernetzen dan aroa

eskapolota: armairu berezia, erdi-alturakoa

estari: leku estali edo ezkutua

estukin: estuteko mimen, kordel, erramal, soka etab.

estukura: estutasun, larritasun

eutso: hartu egik (hitanoz)

ezpia: sugearen punta biko mihia, ezteua

gabonkariak: Gabon jaietarako erosten diran jan-edari bereziak

gabonzuzi: Gabon gauean biztuten dan enbor esanguratsua

gaineko: ha zer zelako

galgarau: gari garau

galtzupoila: galtzu-lastoz egindako eskuta, garia joteko eta gainetikoetarako

gauaro: gaueko denpora, gau luzea

gaulendia: iluntzea, ilunabarra

gauzeztandu: balio ezean geratu

gatzelo: ez ume ez gizon

gesu baten: lasterrera, denpora gitxi barru

- ginen:** egiten
- goian behean:** ugari, asko, fuerte (euria, edurra)
- gureak egin:** hil, azkenera heldu, amaitu
- hazdui:** haitz askoko tokia
- hazitu:** amilua harro-harro itzi
- hegal-itaxurepe:** etxearen teilatupea
- idun:** sama
- ilinti:** surten punta batetik erretzen dagoan egur
luzanga
- indarga:** indar barik, indar gitxiz
- inizitu:** oinaztargi, oinaztua, tximistargi
- inontza:** ihintzea
- inorena:** norberea ez dana, beste batena
- intzigua:** gogo bizia, grina, desira
- isiotu:** biztu (sua zein argia)
- itaxur:** itogin, gotera
- itsaslabar:** akantilatua
- kanpantxo:** dei-kanpai txikia (sakristietan, komen-
tuetan...)
- kaponada:** kapoiak loditzeko zursare edo errejadun
armairua
- kiputu:** hozmindu, moteldu, beratu, bigun-zuritu
- kitantza:** laka, hau da, errotariak arto-gariak eho-
teagaitik jenerotan hartzen eban hamarretik ba-
tekoari
- konorte:** sena, zentzuna
- koxitza:** uzta, fruitu

akatz: arbola enborretako adarkiak edo eta lazta-sunak

lakirioa: zepo harraparia ehizarako

laratza: behesuko tximiniatik egostontziak eskegiteko arandeladun burdin-tresna

lastargi: gari-lastoz edo antzerakoz egiten dan zuzia

lata: solorako egur-habezko hesi-pasoak

leitza: izozte (gau hotzak emoten dauana)

lexia: erropearen garbikuzia, kolada

linaza: liho-hazia erne eta bedarrean heldu arte

lo bat: gau bateko loa

lurmendu: edurra urtu eta lurra ikusi

mardo: lodi, sendo, gizen

marijesiak: Gabonetan kantatzen ziran eta diran oles eta eleiz kutsuko kantak

maskelu: esnea egosteko ontzia behesuan lara-tzetik eskegita.

mendia hartu: egokitu toki edo ekintza batera

menester: eginbehar, zeregin

mira: harrera, txera, kasu

mokots: morrokota, hau da, hiru puntako ogitxoa erdian arrautza eta guzti

morrokota: mokots

oboan-oboan: inguratuz-inguratuz, bueltan-bueltan

ogi-erraria: laberako eta laberik harako ogi, arto eta abarrak

orpoetan har barik: arineketan, arin, karran

osterantzean: bestela

pamitxa: ogi txikia

-(r)i deutsalala: ondoan baina ikutzen, apoiuan, arri-
muan

santiamen: denpora gitxian, arin, berehala

sartzamendia: iluntzean eguzkia sartzen dan zero-
-lur tokia

sor: mogimendu gitxi, astun, gogor

sorots egin: bijilatu, zelatatu

suete: sukalde

tertzio: garai, sasoi, goiz

tipirrika: urduri, saltoka, artega

tragatu: hil, akabatu, (batez ere animaliak)

tragastu: tragasa edo intila tresnaz lurra landu

tremes: gari zahi edo azal eta guztizko ogi mehea,
ogi-integrala

txistada: txissst dei-hotsa

txurruplin: zurrut edan likor-gauza bat

zahagia: ardaotarako narru-ontzia

zakuto: zaku txikia

zantzo: irrintzia

zer den baino ez da!: ez dakit zer dan

zilbota: tripa lodia, garrikotea

zirriginen: zirriak egiten

zirkin: mogimendu

zizeilu: sutondoko jarleku eta abarretarako tresna


zorabiatu: mareatu

zirriginen: zirriak egiten

zumitz: otzarak eta, egiteko egur zapal landu mehea

Aurkibidea

I. Errotari handikia Eguberrietan	7
II. Olentzero eta Eguberri	17
III. Gabon gaueko kanpai hotsa	25
IV. Baltzolako Gizon-Sugea Gabon laguntasunean	35
V. Lamien hondamendia Gabon egunez	45
VI. Gabon-harizko soinekoa	55
VII. Gabonak aitita-amamen baserrian	67



GAZTARO BILDUMA

1. Drogarik EZ!
2. Renatak pianoa joten dau,
ingelesa ikasten dau eta
etabar, etabar, etabar
3. Hiltzen bazara,
ikusiko dozu...
4. Karibeko ipuinak
5. Gorbeiatarrak
6. Astoa eta laurok
Euskal Herrian zehar
7. Periko Kirikoren
bidaia liluragarria
8. Sutondoko
Solasaldia
9. Izaroko altxorra
10. Askatu eizuez pottokak!
11. Otsoaren begia
12. Eguberri eta Gabon ipuinak

Eguberri zein Gabon saioa, geure-geurea egin dogu euskaldunok historian zehar. Ospakizun honen ardatzean Jesukristoren jaiotzea daukagu eta beragaz hasi jakun aro barria.

Euskal Herria, herri zaharra da eta ahoz ahozko tradizio-ipuinak aberasgarri izan jakuz, harik eta historiako idaztargiak biztu arte.

“Eguberri eta Gabon Ipuinak” liburu honetan, Kristo aurreko zein osteko Eguberri-Gabon jaien barri emoten da euskaldunon izakera eta esakera jatorrean oinarrituta. Ipuin-esaunda honeen euskerea, herririk harakoa dozu, bizi-bizia, aberatsa, eta adinean adineangoak ezer galdu ez egiteko, hiztegi eta guzti eskeintzen jatzu.

